

Araia.Asparrena

Lekua: Araia. Asparrena (Araba) <http://www.asparrena.net>
Lan-mota: Ingurumena / Berriztatze-lanak.
Helburua: San Miguel ubidea, sorburua eta Los Molinos aldea artatu eta birgaitzea.
Egunak: uztailaren 15etik 29ra // uztailaren 30etik abuztuaren 13ra
Adina: 18-26 urte
Plazak: 20
Esparrua: Estatu-mailakoa
Hizkuntza: Euskara eta gaztelania
Kuota: 72 €

Asparrena Arabako Lautadako udalerrri polit bat da, 605 m-ko garaiera duena eta Altzaniako eta Entziako mendiek inguratua. Hamar herritan banatuta dago, guztira 1.606 biztanle ditu, eta bertako udalburua Araia da (1.180 biztanle). Araian hartuko dute ostatu, hain zuzen ere, auzolandegiko boluntarioek. Nekazari giroko herria izan arren, badu industria-tradizio sendoa ere. Araian dute abiapuntu, gainera, Euskadiko mendizale kopuru gehien erakartzen duten bidezidorretako batzuek, adibidez Aizkorri (1.528 m) eta Aratz (1.443 m) tontorretara daramatenak.

Udalerriko txoko politenetako bat Zirauntza errekaen sorburua da. Mendi-magaletan, San Pedro zentral hidroelektrikoa dago, energia berriztagarrien museoaren ondoan. Toki horretatik, errekaen sorburura hel daiteke, iharrez eta haritzek osatutako baso baten barrenetik doan [bidexka tematikotik](#). Bidean aurrera, sorburuaren azpiko ur-jauzira helduko gara, eta, aurreraxeago, San Miguel ubidea ikus daiteke. Ubidea 1890ean eraiki zen, harlanduz, ura zentral hidroelektrikora eramateko. Hau da, inguruetako ingeniariak zibilerako balio handia duen ubide sinboliko baten aurrean gaude. Hogei urte dira ubideak ez duela urik garraiatzen sorburutik; beraz, behar-beharrezkoak ditu zaharberritze-lanak.

Sorburua, Araia ur-iturri nagusia ez ezik, bertako industriaren eragile nagusia ere izan da. Bere inguruan, errota iringileak, burdinolak eta bi zentral elektriko sortu ziren. Errota komunitatean barneratuta zegoen, pertsonen eta azientaren eguneroko elikadura-premiak asetzen zituen eta. Bertan, aleez aparte, kakaoa, bolbora, karea edo olibak ehotzen ziren. Kasu jakin batzuetan, argindarra ere sortu zuten.

Zirauntza errekaen ondoan eraiki ziren eta eskualdeko oparotasunean funtsezkoak izan ziren errota haietatik guztietatik, toki-izena eta aurri batzuk baino ez dira geratzen.

Asparrenako Udalak gune hori birgaitu nahi du, bai eta errota zaharren aztarna guztiak ere. Horrekin batera, San Miguel Ubidea, industria-arkeologiaren aztarna garrantzitsua, berreskuratu nahi da, eta, bide batez, baita tokiko memoria ere.

<http://www.asparrena.net>

<http://www.alavaturismo.com/es/index.php>

Estekak ikusteko, sakatu "Ctrl" eta egizu klik testuaren gainean.

LANAREN DESKRIBAPENA

Boluntarioek San Miguel ubidea berreskuratu eta egokitzeko lanak egingo dituzte. Hauek izango dira zeregin zehatzak:

- Ingurua garbitzea eta goroldioa, likenak, sasiak eta abar moztea.
- Sustraiak kaltetutako junturak pikatzea.
- Sustrai-arrastoak ezabatze aldera, junturetarako erretxinez egindako tratamendua aplikatzea.
- Harlanduak dagokien tokian jartzea.

Hauek dira Los Molinos aldean garatu beharreko jarduketak:

- Ingurua garbitzea, bitarteko mekanikoak nahiz eskukoak baliatuta. Kontu handia izango da balio handiko espezieekin.
- Ingurutik erauzitako material guztiak bertan bereiztea eta errota zaharren aztarna posible guztiak berreskuratu eta sailkatzea.

Udalak aholkularitza teknikoa emango du gai konplexuagoetan laguntzeko (arkitekto teknikoa eta udaleko langileak, materiala eta boluntarioak garraiatzeko).

ANIMAZIO JARDUERAK

Animazio-taldeak hainbat ekintza proposatuko ditu, auzolandegiko partaideen eta auzolandegia hartuko duen komunitatearen arteko harremanak sendotzeko eta lanak garatuko diren ingurunea hobeto ezagutzeko.

Gainera, zenbait ekintza prestatuko ditu Euskal Herriko kultura eta ohiturak ezagutarazteko (kirol-jarduerak, jolasak, txangoak, udal-igerilekuak, bisitaldi kulturalak...).. Animazio-taldeak kontuan hartuko ditu boluntarioen proposamenak. Ekintza horiek guztiak arratsaldero eta asteburuetan egingo dira, eta bertan auzolandegiko kide guztiak parte hartuko dute.

AUZOLANDEGIRA ERAMAN BEHARREKO GAUZAK

- Lo egiteko zakua
- Burkoa (behar baldin baduzu)
- Dutzarako eta igerilekurako toalla
- Berokiak eta euritako arropak
- Mendiko oinetakoak eta kirol egitekoak
- Kapelaren bat eguzkitarako
- Bainu-jantzia
- Bizkar-zorroa edo motxila txikia, txangoetarako

AUZOLANDEGIRA ERAMAN BEHARREKO DOKUMENTUAK

Parte hartzaile bakoitzak eraman beharko du:

- NAN edo atzerritar-txartela edo pasaportea
- **Osasun Txartel Indibiduala**

AUZOLANDEGIAREN KOKAPENA ETA OSTATUA

Auzolandegiaren kokapena: Araia herrian, Asparrengo udalerrian (Araba), Vitoria-Gasteiztik 37 km-ra dagoen nekazaritza-ingurua.

Ostatua: Araiako Kultura Etxean. Hainbat gune prestatuko dira, parte-hartzaileen egonaldia ahalik eta erosoena izan dadin.

Otorduak: Araiako Herri Ikastetxea, Kultura Etxearen ondoan (Santsaerreka kalea 9, ARAIA). Sukaldari batek egunero prestatuko ditu, goizez eta arratsaldez, bazkariak eta afariak ikastetxeko sukaldean. Jantokia ikastetxean bertan dago.

AUZOLANDEGIAN HASTEA

Txanda bakoitzaren lehen egunean, **18:00etan, Asparrenako Udaletxean, Araian**. Alkateak eta udalbatzak boluntarioei ongi etorria egingo diete.

Ordu horretarako iritsi ezin denak –betiere, justifikatutako arrazoi bat dela medio–, aurretik Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio, eta hurrengo 24 orduetan, bederen, ailegatu beharko du auzolandegira.

NOLA IRITSI AUZOLANDEGIRA

Estekak ikusteko, sakatu "Ctrl" eta egizu klik testuaren gainean:

[Araiaren kokapen-mapa. Asparrena \(Araba\)](#)
[Heltzeko informazio gehiago](#)

Autobusez, Gasteiztik Araia:

Gasteizko autobus-geltokia: José Mardones kalea, Tel.: +34 945258400
Enpresa: Alegría Hermanos S.A. Tel.: 945 25 19 00

Autobus-linea: 20 Araia-Ozaeta-Vitoria

Irteerak Gasteiztik, lanegunetan:
8:00, 14:00, 15:00, 18:15, 20:15

Autobus-linea: 21 Araia-Vitoria-Gasteiz (Alegría/Dulantzi)

Irteerak Gasteiztik, lanegunetan:
8:00, 13:00, 15:15, 18:15, 20:15

Bidaiaren iraupena: 50 minutu g.g.b.

[Alava-Net – Errepide eta garraioak](#)

Trenez, Madrid-Irun linea

Araiak RENFE geltoki bat du, baina herrigunetik bi kilometrora dago, Albeniz herrian.

RENFEren Gasteizko geltokia: Dato kalea 46

<http://www.renfe.es>

Tel: 902 24 02 02 / 902 24 34 02

AUZOLANDEGIAREN AMAIERA

Auzolandegia azken egunean amaituko da, gosaria hartu eta gero, goizeko 09:00-10:00 bitartean.

ASEGURUA

Eusko Jaurlaritzak gazte bakoitzari **istripurako eta erantzukizun zibilerako aseguru**a egingo dio. Dena den, gaixotasun berezirik edo ahaldunen-urritasunik edukiz gero, horren berri eman behar zaio **Eusko Jaurlaritzari**, Jaurlaritzak gazteak behar dituen estaldurak sar ditzan aseguru polizan.

Gazte bakoitzak bere **osasun-txartela** ekarri behar du auzolandegira.

ARGIBIDEAK ETA HARREMANETARAKO TELEFONOAK

Eusko Jaurlaritza. Gazteria Zuzendaritza:

-Tel: **945 01 95 01- 945 01 95 36**

-Helbide elektronikoa: gazteria-auzolandegiak@ej-gv.es

ARAUAK

Auzolandegian izena eman baino lehenago, komenigarria da auzolandegietako arauak ezagutzea. Ikusi <http://www.gazteukera.euskadi.net> webgunean (ikusi Auzolandegiak - Arauak).